187. zenbakia
· EKAINA 2019 ·

pulunpe



Anue, Atetz, Basaburua, Imotz, Lantz, Odieta eta Ultzamako aldizkaria

Argitaratzailea Ametza Kultur Elkartea

PULUNPE SAREA
Euskara Zerbitzua, Gurutze, Edurne, Laia, Ainara, Patxi, Goizargi, Inma, Izaskun, Maitane, Alicia, Bakartxo, Iñigo, Irantzu, Josu, Arantxa, Iñaki, Jese, Maika, Asier, Facebooken parte hartzen duzuenoi, etab... barkatu aipatu ez zaituztegunoi.

EMAILA
pulunpe@gmail.com

ZENBAKI HONETAKO KOLABORATZAILEAK
Sareko taldekideez gain,
Txurdan eta Patxi Irurzun.

KOORDINATZAILEAK
Itziar Perez eta Garazi Zabaleta

TIRADA
1.600 aleak

INPRIMATEGIA
Gertu

MAKETAZIOA
Zas Komunikazioa

Azaleko Argazkia
Amabitik Beruete aldera ateratako argazkia. Xabi Arrarasek ateratakoa eta Garbiñe Ansorenak bidalitakoa.

LEGE GORDAILUA
NA 721/93

Inprimategira uztailaren 2an bidalia

Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

Olerkia



"MATEO TXISTU "

Idurre Eskisabel Larrañaga - Goseak Janak (2018)

"

Ibili ditut
askatasunaren hipermerkatuak,
lasaitasunaren etorbideak,
erosotasunaren autopistak,
konformatzearen bidegorriak,
etsiaren etxe ertzeko lorediak...

(paradisu zuriaren
simulakro bezatuak, nolanahi)

Ibili naiz
gogoaren basatzetan,
desioaren pendizetan,
ezinaren basamortuetan,
eromenaren labarretan...

(narkotikoz,
terapeuta narkotrafikatzailez,
autolaguntzaz zein autonarkotizatzez
zelaitu gurako laharretan, nolanahi)

Korritu ditut horiek guztiak
jendeen atoian,
hurkoak zein besteak
hartuta makulu:
ederrak, zatarrak,
zintzoak, zitalak,
harroak, apalak...

Ibili naiz
banabil
ba-na-bil
bizitza,
besteak,
neure burua,
banitu bezala ehizakin

"

“Asko pentsatu gabe ardura hartzea erabaki nuen. Norbaitek egin behar du, garrantzitsua baita”

Madali Carpintero Navarro Pulunpeko banatzailea da duela bospasei urtetik hona. Jauntsaratsen andereño gisa hasi zen garaitik, gutxi gorabehera, ingelesko irakaslea baita bertan 5 urtez. Lehenago Irurtzunen irakasten zuen, eta Iruñetik Erasora etorri zen 1989an Zapa bere senarrarekin, herri batean bizi nahi zutela argi baitzuten.

• NOLA HASI ZINEN BANATZAILE?

Lehen Ainara Urritzak banatzen zuen, baina kanpora ikastera joan zen eta orain, gainera, Baztanen bizi da. Horrela, nire senarra Zapak hartu zuen ardura hasieran, eta gero nik. Urte batzuk daramatzagu, ez dakit zehazki, bospasei izanen dira. Batzuetan semeek laguntzen didate, haien artean etxeak banatzen dituzte eta erdi bana egiten dute.

• LEKUKOA HARTUKO AL DIZUTE?

Ez dakit, ez dakit! Auskalo! (barreak)

• NOLA EGITEN DUZUE BANATZEKO, ASTEBURUAN?

Etxe gutxi dira hemen, 16. Normalean ni hasten naiz eta azkar-azkar bukatzen dut. Iritsi eta berehala banatzen dut, udaletxetik deitu eta berehala. Semeek banatzeko eztabaidatzen denbora gehiago galtzen dute (barreak).



Erasoko Pulunpe banatzailea: Madali Carpintero Navarro

• ZERGATIK HARTU ZENUEN PULUNPE BANATZEKO ARDURA HORI? GARRANTZITSUA IRUDITZEN AL ZAIZU KONPROMISO HORI?

Bai, bai, noski. Hemen biztanleen erdiak izanen gara euskaldunak, baina batzuk ez daude hemen egunero. Orduan, asko pentsatu gabe ardura hartzea erabaki nuen. Norbaitek egin behar du, garrantzitsua baita egitea, eta kitto.

• ZERTAN EGITEN DUZU LAN?

Andereño naiz Jauntsarasko eskolan, ingelesa irakasten dut lehenengo mailatik aurrera. Gustura nabil, eskola txikia da, familiarra.

• AURTEN ORDUTEGI ALDAKETA BOZKATU DUZUE, EZTA?

Bai, ordutegi jarraitua izanen dugu heldu den ikasturtean. Hasieran zaila izanen da antolatzea, eskola txikia da, gainera arratsaldean eskolaz kanpokoak eskaintzen ditugu... baina nahiz eta hasieran nahasmena izan, gerora, espero dezagun, hoberako izanen da.

Etxaldeko Emakumeen udaberriko auzolana Oskozko Martixene baserrian

Ekainaren 15ean Euskal Herriko txoko ezberdinetatik iritsitako hamar bat emakume Meghan Sapp eta Iñigo Aranaren Oskozko Martixene baserrian elkartu ziren. Etxaldeko Emakumeen taldeak egindako auzolan deialdiari erantzuten zioten hurbildutakoek: baratzaren inguruan hazitako belar txarrak kentzea eta geotextila jartzea izanen ziren eguneko lan nagusiak.

Urtaro bakoitzean Euskal Herriko baserri eta etxalde ezberdinetan antolatzen dituzte Etxaldeko Emakumeek auzolanak. Batek bakarrik egiteko zailak diren lanak taldean eta elkarlanean aurrera ateratzea izaten da lehen asmoa, baina auzolanek badute bestelako helburua ere: baserritarren eta elikadura burujabetzaren aldeko mugimendua feministatzea eta alderantziz, mugimendu feministari baserritarren eta landa eremuko ikuspegia txertatzea ere badute asmo.

Etxaldeko Emakumeen proiektua

"Etxaldeko Emakumeetako kideok ahal dugun heinean parte hartzen dugu auzolan hauetan, lana izan arren gure proiektuetatik atera eta beste egitasmoak dituzten emakumeak ezagutzeak indar handia ematen baitigu", zioen Bizkaian ekoizle den auzolangileetako batek. Bera bezala, Bizkaitik etorritako ekoizle eta ekintzaileak ziren auzolaneko partaide gehienak, baina Nafarroatik hurbildutakoak ere baziren tartean. Agroekofeminismoa lantzen dute Etxaldeko Emakumeek, eta proposamen horrek piztu zion interesa Meghan Sapp Martixeneko kideari duela zenbait hilabete: "Aurreko urrian iritsi zitzaidan Etxaldeko Emakumeen topaketa batzuen kartela, eta nik ere nire burua agroekofeministatzat dudanez, bat egitea pentsatu nuen. Azkenean, gai hauekin egiten dut nik lan, baina beti kanpoan nabil, eta banuen nire bertako tribua aurkitzeko beharra", dio Imotzko kaliforniarrak.

Taldearen filosofiarekin eta ideiekin maiteminduta gelditu zela aitortzen du Sappek, eta auzolana bere baserrian egiteko proposamena jaso zuenean ez omen zuen inongo zalantzarik izan baiezkoa emateko. Gainera, Etxaldeko Emakumeak ere saiatzen dira Bizkaitik kanpora mugitzen eta auzolanak toki ezberdinetara eramaten. "Bestela, batzuetan badirudi ghetto bat dela hau, eta atera nahi dugu horretatik", zioen auzolaneko beste ekoizleetako batek.



Umorerik ez zen falta hurbildutako emakumeen artean

Lana bai, baina giro ederrean dena da errazago

Goizeko 10:00etan zegoen hitzordua jarrita Martixenen. Meghan eta Iñigok egin beharreko lanen azalpena eman eta beharrezko materialak banatu ondoren ekin zioten hurbildutakoek lanari. Batzuk belar txarrak ateratzen, besteak karretilak kargatu eta belazearen beheko aldean deskargatzen, beste batzuk geotextila lurrera lotzeko piezak mozten...

Elkar ezagutzeko eta giro onean harremanak egiteko aitzakia ona dira auzolanak. Baserriarekin lotutako proiektuez, emakume baserritarrek egun bizi dituzten zailtasunez, nekazaritzaren eta feminismoaren arteko harremanez nahiz beste hamaika gaiez hitz egiteko ere aprobetxatu zuten goiza bertaratutakoek. Lan handia aurreratu zen, umorez eta lagunarteko giroan. Eta nola ez, lan egun batek amaitu behar duen moduan amaitu zuen honek ere: mahaiaren bueltan, guztiak elkarrekin bazkaltzen.

Oskotzen izan da udaberriko auzolana, baina gehiago ere etorriko dira aurrerantzean, eta jarraituko dute Etxaldeko Emakumeek bizitzak eta kontzientziak baserritarren perspektiba feministatik aztertzen eta eraldatzen.



Giro ederrean egin zuten auzolana



Belar txarrak kentzen aritu ziren auzolangileak

Gazteak, auzolanean ikasten

Duela urtebete hasi ziren Meghan eta Iñigo gazteak rantxoan hartzen, eta 25 lagun pasa dira dagoeneko. Azkena Louise Courchinoux izan da, 24 urteko paristarra. Enpresa batean bi urtez lan egin ondoren, eta ikasketa berriak hasi baino lehen, 6 hilabeteko etenaldi bat egin, eta baserriz baserri ibili da Frantzia osoan, Oskotza iritsi aurretik. Ingelesez *Woofing* deitzen diotena egiten ari da: baserrietan laguntzen du ostatuaren eta janariaren truke. Toulouse, Bordeaux eta Les Landes igaro ondoren, Oskozko Martixeneko Bordan izan da hilabete batez, ekainaren 15a arte.

• NOLA ERABAKI ZENUEN *WOOFING* EGITEA?

Natura atsegin dut, animaliak ere bai, eta interes handia nuen jaten duguna nondik datorren ikasteko. Hiri handi batean bizi zarenean, askotan ez dakizu benetan nondik datorren zure platerera iristen den elikagaia: jaten ditugun tomateak zer herrialdetatik datozen, ekologikoak diren edo ez... Oso interesgarria da tortilla bat jaten duzunean atzean dagoen lana ezagutzea. Hirian badirudi besterik gabe iristen zaizkigula arrautzak, baina lan handia behar dute. Hemen, adibidez, 5 oilo dituzte, eta, gutxi badira ere, lan handia ematen dute.

• ZEIN DA HEMEN EGITEN DUZUN EGUNEROKO LANA?

Animaliak dituztenez, hor badira egunero egin beharreko lanak, baita asteburuan ere. Esate baterako, zaldiak atera behar dira larrera goizero, eta, bitartean, ukuiluak garbitu behar dira. Ahuntzak ere askatu behar dira. Oiloez ere arduratzen naiz ni: goizean oilategia irekitzen da, janaria ematen zaie, eta ordurako arrautzak jarri badituzte, haiek hartu egin behar dira. Pasa den astean, gainera, lurra prestatzen hasi ginen haziak ereiteko. 60 metro karratuko bi baratze prestatu behar izan genituen, eskuz. Azkenik, berotegian ere bada lana.

Lana ez da jarraia, ez da gainontzeko lan batzuetan bezala, non goizez lan egiten duzun eta bukatzen duzunean etxera zoazen. Hemen animaliak zaindu behar dira, eta horrek esan nahi du goizean, eta gauean berriro, zer egina badela.

• ZERTAN ALDATU DA ZURE BURUA *WOOFING* ESPERIENTZIA HONEN ONDOREN?

Bizitzaren gauza sinpleenak estimatzen lagundu dit: lau hilabetez arropa berarekin bidaiatzen dihardut eta dutxatzea beti ez da posible izaten; horregatik, aurretik nituen higiene arauak apurtu ditut nolabait, eta garrantzitsuagoak diren gauzez hausnartzeko denbora gehiago izan dut. Gainera, naturarekin kontaktu handia izan dut, besteak beste. Horregatik, esperientzia oso aberasgarria izan dela uste dut, eta eskuzabalagoa izaten lagundu didala esango nuke: ardurak hartu behar izan ditut, munduan ez zarela zeu bakarrik konturatzen zara, komunitate batean bizitzea zer den ikasi dut...



Louis Courchinoux Martixeneko Bordan

Aizarozko Ostatua irailean utziko du Ana Irigoyenek

Hiru urtez egon da Ana Irigoyen Aizarozko ostatua gidatzen, baina etapa horri amaiera emanen dio irailaren 21ean. “Pena handiarekin, baina beste proiektu bat martxan jarri nahi nuen, eta ostatuak ez zidan horretarako denborarik uzten”, adierazi du ostatuko kideak itxieraren zergatiez galdetuta. Behin tabernaren ateak itxita, irailaren amaieran eginen dituzte gunearen garbiketa lanak, eta ondoren Udalaren esku gelditukо da berriz ostatua martxan jartzeko lehiaketa abian jartzea.



Herritarren topagune izan da Aizarozko ostatua

Nafarroako haur eskolen protestarekin bat egin du Ultzamako Xinbili-Xanbalak

Nafarroako 0-3 urte bitarteko haur eskolak kalera atera ziren ekainaren 18an Haur Hezkuntzako lehen zikloan lan baldintza duinak aldarrikatzeko. Ultzamako XinbiliXanbala Haur Eskolako familia ia guztiek egin zuten protestarekin bat.

“Gaur egun gure haurren garapena banaka artatzea ezinezkoa egiten duen ratioari ‘Aski da!’ esaten diogu. Ratio honek langilearen prestakuntza pedagogikoa bere osotasunean abian jartzea eragozten du”, adierazi dute Nafarroako 0-3 Plataformak zabaldutako prentsa oharrean. Heldu diren hilabeteetan ere mobilizazio gehiago eginen dituztela ohartarazi dute Nafarroa mailako plataformatik.



Ultzamako Xinbili Xanbala Haur Eskolaren protesta

Ametza elkartearen argazki lehiaketa

Bosgarren urtez eskualdeko argazki lehiaketa antolatu du Ametza Elkarteak. Ekainaren 16a arte lanak bidaltzeko aukera izan dute argazkilaritzako zaletuek: osotara 14 lan aurkeztu dira aurten lehiaketara, hurrengo Pulunpe aldizkarian azalduko dira lehenengo hiruak, eta argazki irabazlea portadan joanen da. Lehen sarituak 300 euro jasoko ditu, bigarrenak 200 eta hirugarrenak 100.

Aurten bazuen berrikuntza bat argazki lehiaketak: ezin zen paisaia soilak agertzen zen argazkirik aurkeztu. Festa, lana, kirola edota beste edozein jarduera agertzen zen argazkiak behar zuten izan. Ikusiko dugu hurrengo Pulunpen zer emaitza eman duen lehiaketak!



Iazko argazki lehiaketako irabazlea

Iñaki Larraiotzek Berri Txarrak taldearekin joko du Kobetamendin

Berri Txarrakek uztailaren 14an Kobetan emango duen kontzertuan joko duten taldeak iragarri ditu Ahotseneak. Talde bila ari zela iragarri ostean, hautaketa-fasea abiatu zuen Durangoko sortzaile guneak. 71 talde aurkeztu ziren eta 8 bakarrik izan dira hautatuak, haien artean, Larra bideak.

Gainontzeko taldeak Diabolo Kiwi, Iont, Patx & Run, Huts, Dukkha, Natali, eta Atzapar dira.



Iñaki Larraiotzek Esan Erranen aurkeztu zigun Larra Bideak, eta abestu ere bai.

Udako solstizioari ongi etorria emateko suak piztu dituzte eskualdeko herri askotan

Urteroko moduan, ekainaren 23arekin San Juan gaua ospatzeko afariak egin dituzte gure eskualdeko herri askotan, eta bestela izan ezin zuenez, surik ere ez da falta izan: eguzki berria omentzeko eta energia txarrak uxatzeko San Juan suen gainetik saltoka aritu dira herritarrak gau giro apartan. Zenbait lekutan, Berueten esaterako, maiatza altxatu zuten herritarrek.

Herri gehienetan ospakizunak egin arren, Izarpe Kanpinean iluntzerako proposamen berezia prestatu dute aurten bigarren aldiz: udako solstizioa ospatzeko festa antolatu zuten barbakoa handi bat eginez. Kanpineko jendeak nahiz kanpokoek egin zuten bat ospakizunarekin.



Izarpe Kanpineko barbakoa



Maiatza jarri zuten Berueten



Zurezko Tallak

Eskuz Egindakoak

Tailuzko eskulan desberdinak / *Todo tipo de trabajos en talla*

Etxeen izenak / *Nombres de Casa*
Eguzkiloreak / *Cardos de Brujas*
Ongietorriak / *Bienvenidas*
Esekilekuak / *Percheros*
Armarriak / *Escudos*

Ikastaroak / *Cursos*

Mikel Okiñena [Etxaleku]
618 3520 14 [whatsapp] - geroarte@ymail.com

Haurrendako arte tailerra eginen dute uztailean eta abuztuan Etxalekun

Udan zehar haurrak artera hurbiltzeko tailerrak eginen dituzte Etxalekun, udaletxeko erabilera anitzeko gelan. Tailerrak astelehenetik ostiralera izanen dira, goizeko 9:00etatik eguerdiko 13:00etara, eta arte diziplina ezberdinak landuko dituzte parte hartzaileek: zeramika, margolaritza edota tinta txinatarra, besteak beste. Haurrendako tailer hauetan bestelako ekimenak ere eginen dituzte, dena den: pailazo tailerrak, jolasak, yoga, mendi irteerak...

Ainhoa Sanchez eskultorea izanen da dinamizatzailea, eta tailerretan izena emateko ere berarekin jarri beharko dira harremanetan interesa dutenak, 657 31 35 27 telefonora deituz. Asteko 40 euroko prezioa izanen dute tailerrek, 30 eurokoa bigarren seme-alabatik aurrera.



Tailerraren kartela



Bikote askok eman dute izena Gartzarongo pilota txapelketan

35. urteurrena beteko du aurten Gartzarongo pilota txapelketak, eta urtetik urtera

badoa hedatzen eta izena hartzen. Mikel Jaunarena 'Zepelo' antolatzailearekin hitz egin

du Pulunpek, eta aurtengoan ere parte-hartze handia izanen dela azpimarratu digu.

Maila ezberdinetan ondorengo bikote kopuruek eman dute izena:

- ALEBINETAN 58 bikotek
- INFANTILETAN 53 bikotek
- GAZTETXOETAN 43 bikotek
- JUBENILETAN 34 bikotek
- HELDUETAN 66 bikotek
- NESKENAN 7 bikotek

Klub handi askok hartuko dute parte txapelketan aurten ere, eta osotara 261 bikote izanen dira.

Uztailaren 20an hasiko da txapelketa.



Gartzarongo pilota txapelketa

EDARI UNITATEAK (EU)

URA / FRESKAGARRIA	BASOKADA BAT ARDO	KAINA BAT GARAGARDO	GARAGARDO HERENA	KREMA / LIKOREA	RONA / VODKA GINEBRA...
0 *eu*	1 *eu*	1 *eu*	1,5 *eu*	2 *eu*	2 *eu*

ZURE OSASUNERAKO EZ GAINDITU

4 *eu*	*Egunero*	2 *eu*
6 *eu*	*Egun jaikinetan*	4 *eu*

ALKOHOLIK GABEKO BESTA, AUKERA HOBERIK EZ DA!



Onintza Enbeita **,**
Berria egunkarian

Sua

2019ko ekainaren 25ean

Izugarria izango zen Gernika hiru egunez kea zeriola ikustea. Beldurra ematen du basoak erretzean ikusteak. Ileak tente jartzen ditu sutan erre zituzten haien sufrimentuan pentsatzeak. Arnasa eteten dute ez hain urrutiko gerretako suen irudiek. Eta hala ere, etsai baino lagun gehiago ditu suak berak, bere horretan. Badu suak halako erakarmen indar bat. Asko gara beheko suari begira hitzik gabe gelditzen garenak sua hizketan ariko balitzaigu bezala. Igande gauean ere, luzaroan egon ginen suari begira, isiltasunean, munduaren txarra benetan erretzen ariko balitz bezala.

Bere argi, bere gar eta bere ke, suak beti batu izan du jendea bere inguruan. Oraindik ere badira suaren inguruan elkartzen diren herriak: borobilean. Eta horrek pentsarazten dit berotasuna baino zerbait gehiago ekarri zigula suak gizakioi. Nahiz eta, gero, gure eskuetan gauza terribleak egiteko balio izan duen. Suaren epeletan transmititu zizkigun amamak kantu eta kontu zaharrak. Haren inguruan kantatzen dugu urtero, libre, gure soloan ez dagoela zaporik ez sugerik, eta badaude ere, erre egingo direla. Haren inguruan egiten genuen dantzan duela mende asko, gauaren hotzean elkartzen ginenean. Haren arrimura berotzen diren gorputzek goxotasuna transmititzen jarraitzen dute oraindik ere.

Igoako Ibai Iriarte eta Eltzaburuko Joseba Sarasa Irurtzungo eta Arakilgo txapeldunak

Aste Santuan hasi zen pilota txapelketa eta trinitate egunean, ekainaren 15ean, amaitu zen Iriarte eta Sarasaren garaipenarekin. Lehenengo aldiz irabazten dute txapelketa.

Aurten final laurdenetan hasi ziren, iaz finalerdietara iritsi zirelako. Emaitzekin oso pozik agertu dira, izan ere, munduko txapeldun den Usurbilgo Xabi Santxo eta profesional ohia den Asteasuko Julen Urrizola garaitu zituzten lehenengo partiduan, 22-19. Ondoren, final erdietan, Alberto Ongai, profesional ohia eta munduko txapelduna, eta Iosu Bergera, Garfe enpresako pilotaria, garaitu zituzten 22-21. Bukatzeko, Gasteizko David Uribe eta Etxarri Aranazko Aaron Arbizuren aurka jokatu zuten finala, eta 22-12 irabazi ere.

Denboraldi polita egiten ari dira: Euskal Herriko kluben arteko txapelketan hirugarren postua irabazi zuten, afizionatu mailako binakako txapelketan bigarrenak izan ziren, eta gazteen mailan txapeldunak.

Finala	
Iriarte- Sarasa eta Uribe- Arbizu	**22- 12**
Final erdiak	
Iriarte- Sarasa eta Ongai - Bergera	**22- 21**
Final larudenak	
Iriarte- Sarasa eta Santxo- Urrizola	**22- 19**



Irurtzungo pilota txapelketa

Aizarozko festekin hasi da aurtengo jaien denboraldia

Uda iristearekin batera, hemen dira berriz eskualdeko herrietako festak ere. Aizarozkoak izan dira lehenak gurean: ekainaren 8an eta 9an ospatu zituzten. Kirol pixka batekin hasi ziren herritarrak, izan ere, azken urteotako ohiturari jarraituz kronoeskalada antolatu zuten larunbat goizean. Ondoren, eguerdiko 13:00etan Mexikortxo bandak botatako txupinazoarekin eman zieten hasiera ofiziala festei.

Kalejirak, haurrendako jolasak, Luzianorekin dantzaldia, zezensuzkoa, Paratxutx taldearen kontzertua, herriko DJak, artisau azoka, patata tortilla lehiaketa, txipi-txapa lehiaketa, herri bazkaria, aerobik-zunba, pintxo afaria... Denetik ikusi, dantzatu eta dastatzeko aukera izan zuten aizaroztarrek asteburuan.



Giro ederrean bazkaldu zuten aizaroztarrek

Giro ederrean ospatu zuten Ultzamako X. Gaztanbera Eguna

Ekainaren 9an izan zen aurtengo Gaztanbera Eguna Larraintzarren. Eguzkia lagun izan zuten Ultzama aldera bertaratu zirenek, eta goizeko 11:00etatik aurrera hamaika tailerrez eta ekimenez gozatzeko aukera izan zuten: ardi jeztea eta haurrendako forja tailerra, aurpegi-margotzea, ardien ile-moztea, dantzak...

Gaztanbera protagonista handia izanik, hura ongi nola prestatu ikasteko tailerrak ere eskaini zituzten ultzamaldeko gaztanberagile onenek. Haurrendako nahiz helduendako izan ziren saiook, eta gaztanbera ez ezik gazta ere nola egin ikasteko beste saio bat izan zuten eskolara bildu zirenek. Musika, artisauak, dantza, jana, edana eta jai giroa. Zer hoberik gure eskualdean hain preziatua den jakia omentzeko?



Ardiak jezten ikasteko tailerra izan zen goizean



Onddotik

onddorik ez?

“Klima aldaketaren eragina nabaritzen ari gara, eta azken urteak ez dira batere onak izan”

Pasa den urtea oso txarra izan zen, onddoak eta zizak geroz eta gutxiago ateratzen dira, Parke Mikologikoko langilea den Edurne Gerendiainek baieztatu digunez. Aurten ona edo txarra izanen den jakiteko, eguraldiaren zain dira. Udaberri honetan, momentuz, amanitak ikusteko aukera izan dute, eta ateraldiak antolatu dituzte zizak bilatzen dituzten bitartean ekosistema garrantzitsu honi buruz ikasteko.

• EKAINAREN 12AN IBILALDI BAT PRESTATU ZENUTEN, ZER IKUSI ZENUTEN?

Ekainaren hasieran joan ginen basora, eta ziza batzuk hasi dira ateratzen; batez ere amanitak ikusi genituen. Garai honetan onddoak eta ziza horiak ikusteko aukera izaten da, baina oraindik ez ditugu ikusi. Ateraldi hauetan zizen ekologiari buruz ikasteko aukera izaten da, eta, gainera, basoa oso polita dago orain.

• MUNDU GUZTIAK EZKUTATU NAHI DU ZIZAK TOPATZEN DITUEN LEKU HORIEK ETA ZUEK EZAGUTARAZI EGIN NAHI DITUZUE...

Bai (barreak). Askotan, mendira joaten gara, eta ezer ez dugula aurkitu esaten dugu. Baina, gauza da ziza guztiak ez direla leku guztietan ateratzen. Oso garrantzitsua da ezagutzea onddoen elikadura eta bizitza eta non agertzen diren, gero hartu ahal izateko. Onddoek edo ziza horiek, adibidez, sinbiosia behar dute elikatzeko, zuhaitzen ondoan agertzen dira, beraz. Zuhaitzik ez dagoen tokian ez dituzu aurkituko. Hori erakusten dugu: onddoek zer behar duten hazteko, zer elikadura duten..., eta hori guztia ezagutzea ezinbestekoa da. Azken finean, oso garrantzitsuak dira basoarendako, onddorik gabe ez baitago basorik.

• OSO GARRANTZITSUAK DIRA, BERAZ, EKOSISTEMA HORI MANTENTZEKO?

Bai. Gure basoa, adibidez, hostoerorkorreko zuhaitzez osatua dago, hau da, hostoak galtzen dituzten zuhaitzez osatua dago. Hosto horiek erori eta gero desegiten dituzten organismoak dira onddoak. Haiek gabe ezin izanen genuke gure basoetan sartu, urtetik urtera hostoak aurrekoen gainean erori eta basoa izugarrizko hosto multzo handia izanen litzateke. Funtzio hori betetzen dute onddoek.

• EKAINAREN 1EAN BULEGOA ITXI ZENUTEN, MAIATZ OSOAN ZABALIK IZAN ONDOREN, BAIMENAK ESKATZEKO, ZENBAT BAIMEN BANATU DITUZUE?

Iaz bezalatsu, ia 200 baimen banatu ditugu. Lehendabiziko urteetan, hasieran, jende asko zetorren, sekulako

> “Iaz bezalatsu, ia 200 baimen banatu ditugu”

Ierroak egiten ziren baimenak eskatzeko, baina orain Internet bidez eskatzeko ohitura hartu dute. Gainera, baimena etxera bidaltzen dugu; horregatik ez da hainbeste jende hurbiltzen. Dena den, bertan, Ultzaman, erroldatutakoek urte osorako baimena udaletxean eskuratzen ahal dute, eta bi urtetarako da, ez dute urtero berritu behar. Bestalde, kanpokoek ere postaz eskatzen ahal dute, eta etxera bidaltzen diegu baimena. Eguneko baimena, eta Larraintzarko Zentro Zibikoan edo ostatuan ere eskatzen ahal dute; ***parquemicologico.com*** webgunean duzue informazio guztia.



Cantharellus Cibariusa ere hasi da ateratzen.
Parque Micologico Ultzama facebookeko orrialdetik hartua.

• AMANITAK IKUSI DITUZUELA ESAN DUZU, AURREKO URTEA TXARRA IZAN ZEN, AURTEN ZERNOLAKO URTEA AURREIKUSTEN DUZUE?

Klima aldaketaren eragina nabaritzen ari gara: udazkenak ez dira garai batekoak, ez dakigu euririk botako duen, tenperatura altuagoak ditugu... Lehen, urria eta azaroa izaten ziren onddoak biltzeko hilabete nagusiak, eta nahiko onak izaten ziren, baina orain klima aldatzen ari da. Beraz, oraindik ez dakigu; udaberria euritsua bada, udazkena ona izanen da, ikusiko dugu. Egia da, bestalde, uztailaren hasieran euria egiten badu eta onddoak eta ziza horiak ateratzen badira, pentsatzekoa dela gero tenperaturak igotzea, eta horrela, normalean, 'onddo kolpe' bat izaten dugu. Baina hori da ikusi duguna beste urte batzuetan, orain ez dakigu. Eguraldiaren arabera izanen da. Onddoek hezetasuna behar dute, eta lurra beroa izatea, horregatik udaren ondoren lurra beroa dagoenean eta udazkeneko euriak egitean ateratzen dira, hori da normalena.

• BAINA ESAN DUZUNEZ, EGURALDI ALDAKETA NABARITZEN ARI ZARETE, ETA HORI AL DA JOERA? GEROZ ETA ONDDO GUTXIAGO AL DAUDE?


Bai, azken urte hauek ez dira batere onak izan.



Hydnum Repandum onddoa hasi da ateratzen. Parque Micologico Ultzama FB orrialdetik hartua.

JATETXEAK

• MIKEL ODRIOZOLA, ORGI: "Hemen inguruko eta Nafarroako onddoak ekartzen saiatzen naiz, baina ez da nahikoa. Batez ere azkeneko urtea oso txarra izan zen. Nahikoa ez dugunean estatu osotik ekarri behar izaten ditugu, nik, gehienbat, Soriatik, Burgosetik eta Zamoratik".



• PATXI LARRAINZAR, BENTA MIGUEL: "Bai nabaritzen dugu geroz eta gutxiago daudela, bai; laz, lehenbiziko aldiz kanpotik ekarri behar izan genituen, oso onak ziren, baina kanpotik ekarriak bai. Onddoen astean sartzear ginen eta onddorik ez, beraz, kanpotik ekarri genituen".





• IGNACIO SORALUCE, AITONA SAGARDOTEGIA: "Bai, geroz eta gutxiago ekartzen dizkigute ingurutik, kanpora joan behar dute bila hemengo biltzaileek, eta kanpotik ekartzen dizkigute".



• ESTELA GORDO, VENTA UDABE: "Guk ez dugu biltzen, baina bai egiten ditugu enkarguz; onddo biltzaileak etorri ohi dira eta bildutako saskia egitea eskatzen digute. Egia da bai nabaritu dugula geroz eta biltzaile gutxiago datorrela, lehen Gipuzkoa aldetik etortzen ziren saskiren batekin, guk prestatzeko, eta geroz eta gutxiago etortzen dira. Horrek geroz eta gutxiago biltzen dituztela esan nahi du".











AURRERA




















Jantzi soinean euskararen soinuak. Izan soinulari!

Kanpaina hau egiteko ideia kezka batetik sortu zen. Haur eta gazteen arteko harremanetan euskarak duen presentzia eskasa gero eta nabarmenagoa da. Atzeraka doa adinean eta espazioan; izan ere, euskara etxeko hizkuntza izan duten haurrak ere erdaraz gizarteratzen dira, lehenik auzoko lagunekin, eta gero ikastetxeetako kideekin.

Kanpaina, hala ere, ez da haur eta gaztetxoei zuzendua. Haurrak inertziaz jokatzen dute eta aurkitzen dituzten egoera berrietara moldatuz joaten dira. Ikusten eta entzuten dutena errepikatuz joaten dira bere ohiturak finkatuz; hizkuntzaren kasuan, besteak beste, entzuten dituzten soinuak errepikatuz eraikitzen dute beren komunikazio sistema. Haiek ez dituzte biziko diren egoerak ez izanen dituzten harremanak aukeratzen.

Horregatik, gurasoengan eragin nahi dugu, seme-alabei euskarazko soinuak entzuteko aukera emateko. Etxetik hasita, guraso euskaldunak haien artean erdaraz egiten badute, seme-alabek erdara hartuko dute etxeko hizkuntza; auzoan edo jolas guneetan, lagunen gurasoen artean erdaraz egiten badute, erdara izanen da nagusien hizkuntza, eta imitatu egiten dutenez, euskara baztertuko dute euren arteko harremanetan ere.

Ideia da gurasoak horretaz ohartaraztea egoera horiek islatzen dituzten irudien bidez toki estrategikoetan pankartak jarrita. Irudiak sortzeko eskualdeko hainbat artistekin jarri ginen harremanetan, eta, azkenean, Virginia Domeñok eta Ana Ibañezek hartu zuten ardura. Haria Dani Martirenak eman zien, berak sortu baitzuen kanpainaren leloa "Jantzi soinean euskararen soinuak. Izan Soinulari!" euskararen onomatopeietan oinarriturik.

Gure asmoa da kanpaina lau urtaroetan egitea; hau da, oraingo hau udara begira, udazkenean eskolaz kanpoko jarduerak gai hartuta, eta negu eta udaberrikoa definitu gabe daude, baina helburu eta lelo bera izanen dutela uste dugu. Izan soinulari!



Kanpainaren kartela



Kanpainaren kartela

ANA IBAÑEZ *Kanpainan parte hartu duen artista*



"Bi ume dauzkat nik, eta ikusten dut gurasoen artean badagoela kezka, umeek euskara hitz egin dezaten eta euskerako soinuekin ohitu daitezen nahi dugula. Ni ez naiz euskalduna baina haiek izanen dira eta hizkuntza maita dezaten eta goza dezaten nahi dut. Beraz, oso gustura hartu nuen kanpainari irudiak egiteko proposamena, zeren pentsatu nuen: 'Zer egin dezaket nik nire tokitik?' Ba horixe, irudiak jartzea euskararen alde egiteko".

"Kanpainako lehen irudi honetan udako soinuak sartu nahi izan ditut: aisialdiko irudiak, haurrak jostatzen, izozkia jaten... Udako kolore argiak erabili ditut lanean. Onomatopeien ideia polita iruditu zait. Txikiaren irakaslearekin hizketan, ohartzen nintzen ez nekiela onomatopeia askok zer esan nahi zuen, baina polita da, zeren jolas baten moduan har daiteke, soinu horien esanahia bilatu eta deskubritzeko".


DANI MARTIRENA *Kanpainako leloaren egilea*



"Kanpainaren berri eman zidatenean pentsatu nuen agian onomatopeietatik tira egin zitekeela ohartarazteko euskarak ere bere soinuak dituela, euskaraz hitz egiten ez badugu hizkuntza bera mutu gelditzen dela eta gu geu ere biluzik gelditzen garela. Horrexegatik dio leloak: jantzi ditzagun euskararen soinuak, eta gure ahora eraman ditzagun euskararen soinuak...".

Askotan, norbaitek erran arte ez gara konturatzen gure zakurrek ez dutela guau! egiten, zaunk! egiten dutela. Beraz, polita iruditzen zitzaidan soinuen aldarrikapen hori egitea, onomatopeiekin jolas egitea, eta aldarrikatzea onomatopeien jolas hori ez soilik haurrei, helduoi ere badagokigula".

VIRGINIA DOMEÑO *Kanpainan parte hartu duen artista*



"Gaur elkarrizketa euskaraz egiten saiatuko naiz, ni soinularia naiz eta! (barreak)".

"Kanpaina oso polita iruditu zait, eta benetan uste dut jendeari zerbait piztuko diola, balioko duela zerbaitetarako. Egin genuen lehen bilerak asko lagundu ninduen niri irudikatu nahi nuena erabakitzeko. Orduan erabaki genuen hitzak eta soinuak erabiliko genituela, eta hortik tiraka segituan bururatu zitzaidan irudia".

"Anak eta biok banaketa moduko bat egin genuen: ni animaliak-eta marrazten hasi nintzen, eta orduan horrekin gelditu nintzen, eta berak berriz burua gehiago zuen parkeak, jolasak eta horrelakoak marraztean. Naturaren soinuak euskararekin nahasten saiatu naiz ni, eta horrekin marrazkia egiten".

"Gustura nago emaitzarekin, eta gainera nire euskara berpizteko ere balio izan du! Kanpainaren berri emateko deitu zidatenean pentsatu nuen: 'Hauxe da nire aukera!'. Beraz, pertsonalki ere balio dit eta oso pozik nago".

85 urte eta

Maria Josefa Gelbentzu (II),

Munduan barna erromesaldia

Aurreko Pulunpen Maria Josefaren gazte denborak ibili genituen hizpide, Donostian moja sartu, Kubako egonaldia eta deus gutxi gehiago.
Oraingoan bere ikasketak eta ondorengo lanak ekarri ditugu.

Eta Kuban hasitako ikasketak, non eta noiz bukatu zenituen?
Santo Domingon unibertsitatera joan nintzen eta Pedagogia karrera bukatu nuen, 1965. urtean.

Zenbat urte egin zenituen Dominikar Errepublikan?
Hemezortzi bat denetara, 1970.era artio; gure aita hil zen eta hona etorri nintzen. Hemen lau urte pasa nituen Olivenzan, Estremaduran, hango eskola bat gure esku hartu genuen eta.

Hemengo egonaldia alde batera utzi eta Ameriketako kontuz galdetu diogu, Kolonbiara joan baitzen eta geroztik bertan baitugu.

Zer egin zenuen Kolonbian?
Neska gazteak botoak egin ondoren, erlijio goi-formakuntza hartzeko biltzen zituzten komentu batera eraman ninduten. Bertan haien zaintzen egoten nintzen.

Lan bikaina.
Bai, baina bizia atera beharra zegoen eta lana ere topatu behar izan nuen. Eta han eta hemen galdezka-eta ibiltzea tokatu zitzaigun, ogibideren baten bila, bizitzeko irabazi behar!

Eta zuri zer egokitu zitzaizun?
Oroitzen naiz, nola joaten nintzen bazterreko eskola batean klaseak ematera. Eta diot bazterrekoa zela, bertan biltzen zirelakoz bertze eskola batzuetatik botatakoak. Batxiler ikasten ari ziren batzuk umeak ere bazituzten, pentsa nolako saltsa izaten zen han!

Eta zer ematen zenieten horrelako ikasle bereziei?
Kolegio horretan galdetu zidaten ea zer eman nahi nuen eta nik erran nien erlijioa eta artea eman nezakeela.
Eta arrakasta handia izan nuen. Eta pentsa, umeak eta guzti zituzten batxilerreko mutikoekin aritu behar izan nuen, ez zen erraza.

Nola izaten da lana horrelako egoeran eta horrelako gazteekin?
Nik, beti, lehenik, diziplina ezartzen dut. Eta gero maitasuna eta gainerako guzia, baina lehen-lehenik diziplina.
Badakizu, ni 21 urtetan Kuban hasi nintzen 8. mailako neskatoekin –neska eginak ia- dibujoa edo marrazketa ematen. Eta ezin burutuz ibili nintzen. Oso gaizki pasatu nuen, eta nire maistra bokazioaz eta guzi dudatu nuen. Han ikasi nuen, lehen-lehenik, zuzena izan behar dela eta diziplina ezarri behar dela. Gero kariñoa, nahi badituzu txisteak kontatu ..., baina lehenik, erran dudan bezala, diziplina.

Eta Kolonbiako eskola berezi horretara itzuliz. Lehenik diziplina ezarri zenuen.
Bai, berehala. Lehenik galdetu nien ea nori gustatzen zitzaion marraztea. Eta ez zitzaion inori ere gustatzen.- *Ederki! Hori gustatzen zait niri, argiak eta zintzoak izatea. Ikusiko dugu zortzi egunen burura zer erraten duzuen!*
Eta gelan jar arazi nituen biribilean, mahaitxoak biribilean, eta paperik gabe hasi ginen.
Hori gustatu zitzaien, bertze modu batean jartzea gelan, biribilean esertzea. Eta horrela pizarra batean hasi nintzen erresto zuzenak, borobilak...egiten. Eta gustatzen hasi zitzaien.
Eta hurrengo egunean gehiago, eta hurrengoan gehiago ...



Hemen Joxe Mari anaia gaztenarekin.



Egun batean horrela erran zidan ama batek: ***bbadakit noiz ematen duzun zuk klasea. Zuk duzunean lehen orduan klasea ematen, ez dut abisatu behar izaten mutikoa, bertzela beti ezin jaikiaraziz ibiltzen naiz, baina zu zarenean, brist, jaikitzen da abisatu beharrik izan gabe.***

Erlijio ikasketekin berdin, nahiz lehen egunean batek erran zidan, probatzeko edo, "nik ez dut Jainkoagan sinesten". Eta nik erantzun nion, "ba, ez dakizu zer galtzen duzun!" Eta handik aurrera ez ninduen behin ere gehiago zirikatu.

Oso-oso zoriontsu izan ginen eskola hartan.

Berrogei urte zenituen orduan.

Bai, baina eskola hori ere bukatu zen bertako zuzendaria hiltzean, eta neronek ere ez nezakeen segi, ez bainuen ia astirik.

Kolonbiako eskola hura utzi eta gero zer?

Moskerara joan nintzen, urte bat egin eta Buenaventurara gero, gaur artio.

Eta hemen gizarte lanetan aritu zara.

Bai, gizarte lana batez ere, baina parrokietan katekesia ematen ere bai.

Eta gizarte lana zertan datza?

MMutikoekin batez ere, artisautza ematen, esku-lanak.

Maria Josefa, Maria Santos bere koinatarekin. Eta Auzan dituen iloba batzuk, egin dituzten esku-lanekin.



Eta honekin utzi dugu elkarrizketa hau, osasuna eta lana, lana eta osasuna eskatuz Maria Josefa Gelbentzu Goienaga Auzako moja bipil honentzat. Ibili ongi!

Txurdan

OHARRA

Maria Josefak orain arte kontatutakoa alde batera utziz, Kolonbiako bere bizitzaz hainbat gauza kontatu dizkigu, arrunt interesgarriak, baina guk hemen tokirik ez. Pentsatu dugu **amezti.eus** *gure agerkari digitalean jartzea izanen dela hoberena. Eta horrela, elkarrizketa osoa irakurri nahi duenak bertan izanen du.*

Hiztegia

Erromesaldia: prozesio-ibilaldia.
Goi-formakuntza: Ikasketa handiak.
Ogibidea: Ofizioa.
Egokitu: Tokatu.
Arrakasta: Éxito.
Ezarri: Jarri, imponer.
Ezin burutuz: Erdaraz, sin poder hacer carrera.
Berezia: Especial.
Brist: Abiatzeko mugimendu azkarra.
Gogo-jardunak: Ejercicios espirituales.

Moja izatearen zailtasunak

Maria Josefa, moja izateak ere berekin izanen ditu zailtasunak...

Ez dakit hau kontatu behar dudan, baina beharbada komeni da erratea. Jendeak uste du mojei ez zaizkigula gizonak gustatzen, ez garela maitemintzen...

Bakarren bati entzun izan diot: Halakori ez zaizkio gizonak gustatzen, nik uste mojetako bokazioa baduela.

Eta nik diot: ***hortaz ba, ez du moja izateko bokaziorik!***

27 urte nituenean, horrela, buruan sartu zitzaidan Jainkoak kontu hartuko zidala izan ez nituen umeez. Eta buruhauste bat bihurtu zitzaidan, eta bertzaldetik, berriz, nik ikusten nuen mojatako bokazioa banuela... Eta zer egin?

Horrela nenbilenean, gogo-jardun batzuetan, apez gidariari azaldu nion gertatzen zitzaidana eta honek hala erantzun zidan:

-Hona norbait etorri eta ziurtatuko balizu bokazioa duzula, zer eginen zenuke?

-Ni, buru-belarri jarriko nintzateke Jainkoaren zerbitzuan, duda izpirik gabe.

-Ba, nik erraten dizut aurrean duzun mendi hori baino handiagoko bokazioa duzula.

Eta horrela, handik aurrera saiatu nintzen pentsamendu horiek uxatzen eta Jainkoaren zerbitzura buru-belarri jarri nintzen. Arazoa berez laster konpondu zen.

Patxi Olaiz, Amati Abesbatza:

"Ahotsa lantzeaz gain eskualdeko jendea ezagutzeko eta harremantzeko aukera ere ematen digu abesbatzak"

• Noiztik duzue martxan Amati abesbatza?

2013ko apirilean hasi ginen biltzen, Aste Santu inguruan. Arraroa da garai horretan hastea, baina gabonetan Iruñeko abesbatza batekoak etorri ginen hona kantatzera, eta kontzertu ondoren bertako batzuk hurbildu zitzaizkigun hemen ere abesbatza sortu nahi zutela esanez. Harremanetan jarri eta horrela hasi ginen. Geroztik urtero irailean ekiten diogu lanari, jada bost bat urte daramatzagu.

• Nongo jendea biltzen zarete Amatin?

Ultzamako jendeaz gain eskualdeko beste herrietatik ere etortzen da jendea: Odieta, Atetz, Ziaurritz, Gaskue, Arostegi eta Basaburuko jendea gabiltza abesbatzan, besteak beste. Horrez gain, Iruñea aldetik ere etortzen dira bizpahiru lagun, baita zuzendaria ere . Beraz, ez da Ultzamara mugatzen korua, eskualde guztiko jendea biltzen du.

• Non eta zenbatero entseatzen duzue?

Ikasturte hasieran erabakitzen dugu noiz egin entseguak, baina normalean astean behin elkartzen gara, aurten asteazkenero 19:00etatik 21:00ak arte biltzen ginen Larraintzarko zentro zibikoan. Dena den, irailean egiten dugu ikasturterako planteamendua, eta zuzendariaren eta partaideen beharretara moldatzen gara.

• Zenbat zarete gaur egun abesbatzan? Jende gehiagoren bila zabiltzate, ezta?

15 bat biltzen gara oraingoz, baina egia da gehienak emakumezkoak direla, 4 gizonezko bakarrik baikaude abesbatzan. Horretan badugu laguntza beharra, gizonezko gehiago animatzea nahiko genuke. Gainera, hasiera batean hiru ahotsetan egiten genituen abestiak eta gizonezko guztiak batera geunden, baina orain lau ahotsetara hasi gara eta batzuzetan nahiko justu iristen gara. Beraz, orokorrean jendea animatzen dugu abesbatzan parte hartzera, baina bereziki gizonezkoei egiten diogu dei.

• Ahotsa lantzeaz gain beste zenbait alderdi ere lantzen dituzue koruan.

Bai, esaterako, ahotsa lantzeaz gain zenbait kontzeptu musikal ere ikasten ditugu. Bestetik, jendearekin egotea eta beste abesbatzekin harremanak egitea ere aberasgarria da oso. Polita da zuk duzun zaletasun bat besteekin konpartitzea eta gozatzea. Giro oso onean aritzen gara.

• Eskualdetik kanpo ere aritu zarete kontzertuak ematen?

Bai, kontzertuak ematea ez da inoiz gure lehen helburua izan, baina urtero pare bat ematen ditugu. Aurten proiektu berezia izan dugu, gainera: Berriobeitiko eta Irurtzungo abesbatzekin elkartu gara eta toki berrietan eman ditugu kontzertuak: Tarazonan, Artikan, Iraizotzen...



Patxi Olaiz

• Zer esanen zenioke eskualdeko jendeari abesbatzan parte hartzera animatzeko?

Kantatzea gustoko badute aukera oso polita dela. Bada kanta berriak ikasteko modu bat, eta ez da inolako musika ikasketarik eduki behar parte hartzeko: nahikoa da konpromiso minimo bat hartzeko gogoa edukitzea. Aukera oso ona da, etxetik hurbil, inora joan beharrik gabe, eta ez du hainbesteko esfortzurik eskatzen.



Amati abesbatza

Anuetik Imotza, Baztandik pasatuz (I)

Zarranzko Joxe Zarrantz zenak, adiskide handiak, **Luxenea**, bere etxeko atalgainetik ikusten zuen, aurrez aurre, **Karakoetxea**. Egunen batean Karakoetxeak zer esanahi ote zuten atera hizpidera eta zera esan nion, Garaikoetxea zela hori baina Karakoetxea esaten zaiola hemen eta baita hemendik kanpo ere. Nik beti horrela entzun izan dudala. Eta Garaikoetxea bizkarreko edo gaineko etxea esan nahi duela.

Hurrengo bisita batean kontu bera atera zidan. Ez, ez zitzaion burutik sartzen horrela izan zitekeenik. Ez nintzen harritu, bai bainekien berak beste zerbait zuela buru barnean: aurrez aurre, **karaz kara** zuen etxea zuen eta hori zuen ttikitatik buruan sartua ... *Karako etxea*, aurrez aurre zuena, alegia.

Garaia hitzaren esanahiak ez zituen ezagutzen, eta ez da harritzekoa, hitz hori hemen erabat galdua ez badago ere, ia-ia galdua baitago.

Orain duela 60 urte ere Oskozko neska gazte batek hala idazten zuen **Larranbita** edo, hobeki esan **Larrainbideta** Oskozko toki izena: **La ramita**. Eskolatik atera berria eta han ikasitakoa buruan, euskara baztertzen eta gutxiesten zen lekua baitzen orduan eskola.

Hola izaten ziren eta eskolak; eta maisuak ere bai, maiz samar; eta erdaldun hutsak gehienetan! Gure maisua horrelakoa zen behintzat.

Eta zer esan Irurtzungo Guardia Zibilena? Latasa ia beti **La Tasa** idazten zuten, tasak kobratzen ziren lekua iduriturik edo. Eta **La Taza** idazten zutenean? Zezeoa zela eta? Katilua ez bazuten buruan!

Okerrak egitea ez dago ongi, baina deus jakin ez eta erakutsi nahi izatea ere!!! Arranopola! Eta okerrago kanpotik etorritakoak direnean! Atzerritarren jarrera hau kolonialismoarekin lotzeko ez da deus behar. Bai, bai, niri kolonialismoa iduritzen; eta gainera, oraindik ere segitzen duen kolonialismoa da. Orduan bezalatsu gaude... zoritxarrez!

Eta horrela ikusiko ditugu okerrak egiten, ez dakitenek dakitenei erakutsiz, gure leku izenak okertuz eta batzuetan izen berriak emanez.

Esate baterako, Anue eta Esteribarren artean, Egozkuen hor dugu Alto de Egozkue behin eta berriz irakurri beharra. Ez al du berezko izenik? Esteribarren eta Anuen horrela deitu izan al zaio erdaraz mintzatzen ez zenean ere?

Toponimo edo leku izen hori **Igoli** da. **Igoliko** lepoa deitu izan zaio beti, hori nion entzun askotan Don Emilio Lintzoain Muskizko apeza zenari, Eugin sortua baina gero Iragin bizitutakoari. Eta Olaguen ere hori dut entzuna bati baino gehiagori.

Izen horren berreskuratzea ere ez legoke batere gaizki. Anueko Udalak proba egin beharko luke. Zergatik ez ditugu gure leku izenak behar bezala zaintzen?

Gaur, Egozkueko iturrian ez dugu ardo frexkorik topatu. Hurrengoan beharko du.

Txurdan

Hiztegia

Atalgaina: Kanpo ateak, askotan, orria bat bi zatitan izaten dute. Gainekoa atalgaina da.

Ceceo: Zizipaza (s-ak z-tarekin nahastea)

Berreskuratu: galdutakoa berriz eskuratu.



Anueko udaletxea, Olaguen

Euskal Irakurle Taldea

Euskarazko irakurle talde bat sortu dute Imotzen

Ekainaren 8an bildu ziren lehendabiziko aldiz, Sagrario Alemanek dinamizatuta, eta komentatuko duten lehenengo liburua aukeratu zuten: Filipe Bidarten Bakartasunaz bi hitz. Irailetik aurrera hilean behin biltzeko asmoa dute, eta liburua irakurri ez baina entzutera hurbildu nahi duena ere pozik hartuko dute. Euskaraz irakurtzeko ohitura sortu nahi dute gazteleraz bakarrik irakurtzen duten irakurleen artean. Idoia Astiz da ekimen hau bultzatu dutenetako bat , eta berarekin hitz egin dugu.

• NOLA SORTU ZEN EUSKARAZKO IRAKURLE TALDE BAT OSATZEKO ASMOA?

Urtero batzuen artean hitz egiten genuen zerbait zen, baina ez genuen erraza ikusten askok euskaraz irakurtzeko ohiturarik ez zutela esaten zigutelako; baino, dena den, IKAk bultzatu du ekimena, eta Sagrario Alemanek dinamizatu zuen lehendabiziko bilera. Bera ohituta dago, Iruñean sortu zen lehenengo euskal irakurle taldean parte hartzen du, eta proposamen pila batekin etorri zitzaigun. Ez ginen jende asko bildu, 4 besterik ez, batzuek ezin zutelako. Baina, bi gehiagok, gutxienez, esan digute interesa badutela. Euskaraz irakurtzeko ohitura sortu nahi dugu, batzuendako suspertzea edo indartzea izanen da, baina, batez ere, ohitura sortzea da gure helburua.

• EUSKARAZKO IRAKURLE TALDE ASKO DIRA NAFARROAN?

Nik uste dut oraindik gutxi daudela. Badakit Iruñean bizpahiru direla, lehenengoa Sagrario parte hartzen duen talde hori izan zen, Zaldiko Maldikon biltzen dira aspaldidanik. Beti desioa izan dut agertzeko, baina alferkeria ere banuen Iruñera joateko. Horregatik, askotan hitz eginda genuen hemen bat sortu behar genukeela, euskaldun pila bat baikara, eta irakurtzeko zaletasuna duen jendea badago. Baina gazteleraz irakurtzeko ohitura dugu, euskaraz gutxi. Horrela, denok batera, elkarrekin, badirudi gehiago animatuko ginatekeela.

• IRAILEAN HASTEKO ASMOA DUZUE, ZER MAIZTASUNEKIN BILDUKO ZARETE?

Gure helburua hilero biltzea da, aukeratutako liburua irakurtzeko eta komentatzeko. Ez hizkuntzari dagokionez, istorioari buruz hitz eginen dugu. Lehenengo liburua aukeratu dugu dagoeneko.

• ZEIN IZANEN DA?

Filipe Bidarten ***Bakartasunaz bi hitz***, Txalaparta argitaletxearena, irakurterraza zela komentatu zigun Sagrariok, eta atsegina. Bere bizipenak kontatzen ditu Filipe Bidartek, 25 hilabetez isolaturik izan zen kartzelan, eta horretaz idazten du berak liburuan. Gehiago elkartzen garenean, beste aukera batzuk ikusiko ditugu. Poesia ere aztertu genuen, baina, beharbada, zailagoa da. Hura, elkarrekin irakurri dezakegula pentsatu dugu, biltzen garenean. Bestalde, nahiz eta liburua ez irakurri norbaitek entzutera bakarrik etorri nahi badu, horretara animatzen dugu. Gainera, noizbehinka idazleren bat ekarri genezake, baina ikusiko dugu, poliki-poliki joanen gara.



Bakartasunaz, bi hitz- Filipe Bidart

BIZI JAIAK
BERDINTASUNEAN



LARRIALDIAK

SOS 112

Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

INFORMAZIOA

016 ATENCIÓN A VÍCTIMAS DE MALOS TRATOS POR VIOLENCIA DE GÉNERO

Baztan Rugby Taldearen senior taldea desagertzeko arriskuan

Urteetako historia du bizkarrean Baztango Menditarrak Rugby Taldeak: 40. urteurrena bete zuen iaz kirol taldeak, baina tradizio handiko taldea izateak ez die azken urteetan behin baino gehiagotan izan duten arazotik libratu: jokalari faltagatik senior taldea desagertzeko arriskuan dago momentu honetan. "Lehenago ere egon gara antzeko egoeran, jende eskasia zela eta urte batzuetan desagertu ere egin zen taldea", azaltzen du Julen Linzoain taldeko kideak.

Arazoa beti presente egon bada ere, aurten egoera larriagoan aurkitu dira. Zenbait jokalarik taldea utzi dute adinagatik, bizitzako joan-etorriengatik edota kanpoan ikasten edo lan egiten dutelako. Baja horien aurrean jende gutxik hartu du erreleboa, eta beraz, desagertzeko arriskuan dago BRT. "Jende kopuru handia eskatzen du kirol honek: 15 jokalarik egon beharra dute zelaian, eta deialdian 23k", dio Iragiko jokalariak. Urteotan gure eskualdeko jende askok jokatu izan du BRTn.

Jokalari berriak erakartzeko entrenamendu irekiak

Maiatzean zehar entrenamendu irekiak egin zituzten Lekarozko zelaian, jendeari errugbia frogatzeko aukera eman eta horrela jokalari berriak erakartzeko asmoz. "Gazte batzuk etorri dira frogatzera eta badirudi gustatu zaiela, baina ez dira nahikoa, jende dezente behar baitugu", kontatu digu jokalariak. Partidu guztietan parte hartzeko konpromisoarekin hamazazpi jokalari daude, eta konpromiso txikiagoarekin beste zazpi. BRTko zuzendaritzak zehaztutako minimoak ez dituzte betetzen, dena dela: partidu guztietarako 22 jokalari prest, %100eko konpromiso mailarekin egotea da ezarritako minimoa. "Abuztuaren amaierarako ez badugu jende kopuru hori lortzen ez dugu ligan jokatuko eta taldea desagertuko da".

Erabaki hori hartzea benetan zaila egiten zaiela azaltzen du jokalariak. Izan ere, taldea ez bada ateratzen eta urtebeteko geldialdia egiten badu, kontziente dira gerora berriz bueltatzea zaila izanen dela. BRTren senior taldearen etorkizunak, gainera, beste mailetan dituzten bost taldeetan ere badu eraginik: "Senior taldeak egiten duena eginda, gazteek beste urte batez behintzat jarraituko dute, ea egoera konpontzen den. Baina seniorren taldea guztiz desagertzen bada beste mailak mantentzeak ere ez du zentzu handirik", dio.

Asko da kolokan dagoena, beraz. Ultimatuma da orain bota dutena: abuztuan hasiko dira entrenamenduekin, eta taldearen martxa ikusita hartuko dute azken erabakia irailean sartu baino lehen. "Egia da jende berriak hasi nahiko balu aurten momentu oso ona dela, beheko mailara jaitsi baikara eta ikasteko ezin aproposagoa izanen baita", adierazi du Linzoainek. Deialdia egina dago, beraz.



BRT rugby taldea

Iritsi da ezpelaren hondamendia gure eskualdera ere

2018ko urriko Pulunpe aldizkarian aurreratu genuen jada: ezpela jaten duen Cydalima perspectalis harra iritsi da Nafarroara eta gure eskualdera, batik bat Odieta ingurura. Arazoa duela zenbait urtetik badator ere, azken bi urteetan eman du ezpelaren harrak gorakada nabarmena: "Lehenagotik ari zen zabaltzen, baina azken bi urteetan lehertu da egoera. Adibidez aurten Odietan ikusi dugu, Ziaurritz aldean badaudela magal batzuk erabat janak", azaltzen du Juanillo Markina Nafarroako Ingurumen Kudeaketan aritzen den Aizarozko bizilagunak.

Alemanian aurkitu zuten berez Txinakoa den har espeziea lehen aldiz Europan, duela zortzi urte inguru, logistika zentro baten ondoan zegoen ezpel sail batean. Handik azkar batean hasi zen zabaltzen, bi modutara: mintegietatik landareak kutsatuta aterata eta modu naturalean, harra tximeleta bihurtu eta ezpel berrietan arrautzak jarrita. Alemaniatik Frantziara, eta Bidasoaldetik barrena iritsi da gurera. "Duela bi urte iritsi zen Leitzaldera eta Malerrekara, eta Basaburuan ere hasi ginen ikusten", dio Markinak. Arazoaren berri gobernuari eman arren momentu hartan ez zen neurririk hartu eta zabaltzen jarraitu zuen harrak. "Pirinio ingurura zabaltzen hasi da orain, eta han izugarria izanen da, Zaraitzu eta Erronkari alde hartan ezpel asko baitago", dio ingurumen langileak.

Kontaktuzko intsektizidekin edo nekazaritza ekologikoko Bacilus thuringiensisekin tratatu daiteke ezpela, harrak hostoa jatean hiltzen da horrela. Arazoa da harra jaio eta gerora tximeleta bihurtzean, arrautzak jarri eta 30 egunera jaiotzen direla har berriak. "Uda osoa horrela ematen du, eta 5-7 belaunaldi artean sortzen dira uda batean. Beraz, pentsa, pozoiarekin zure etxeko ezpelak tratatuko bazenitu ia astero egon beharko zenuke tratatzen, eta hori mendian ezinezkoa da", azaltzen du Markinak.

Eta gaitz honen aurrean zer? Bada, ingurumen langileak gobernuari egin dioten proposamenaz hitz egin digu: gure inguruetako ezpel ezberdinekin erreserborio genetikoa egitea, desagertzeko arriskuaren aurrean material genetiko zabala edukitzeko babestuta.

> **"Txinan oreka batean bizi da har hau, baina hemen ez du ez harraparirik ezta parasitorik. Beraz, momentuz behintzat ez dago beste irtenbiderik"**



Ezpela janda

Umeendako nobedadeak liburutegian

(eta helduendako batzuk ere bai)

Badakizue munstroek ere hortzak garbitzen dituztela? Nolakoa izango litzateke ume bikingoendako kanpaldi bat? Nortzuk dira Bacon Brothers-ak? Ezagutu nahi duzue dinosauroei buruzko egia osoa?

Galdera horiek guztiek loa kentzen badizuete, liburutegira etorri beharko duzue. Dena liburuetan dagoelako, abesti oso oso oso zahar batek esaten zuen bezala (gutxienez, berrogei urte ditu, pentsa!). Eta horregatik hainbat nobedade ekarri ditugu azken asteotan gure apalategietara, galdera hauek guztiak erantzuteko.

Ikus dezagun!

• MUNSTROEK ERE HORTZAK GARBITZEN DITUZTE. Jessica Martinello eta Gregori Mabire. Euskaraz. 3 urtetik aurrera

Bai, munstroek ere pixa egiten dute, eta hortzak garbitzen dituzte eta... Ez didazue sinesten? Zabaldu liburu hau, eta ikusiko duzue zer gertatzen zaion hortzak garbitu nahi ez dituen haur bati. Hobe duzue kontuz ibiltzea, munstro beldurgarriak aurki ditzakezue eta!

• LOS BACON BROTHERS. De vuelta a América. Davide Cali eta Rinan Badel. Gaztelaniaz. 3 urtetik gora

Hiru txerritxo ipuinaren bertsiorik dibertigarriena eta berriena aurkituko duzue liburu honetan. Ospe handia lortu zuten orain dela hogei urte Bacon Brothers rockeroek. Orain lasai bizi dira hiru musikariak, bakoitza bere etxean. Baina egun batean, bat-batean, bere bideo zahar bat zabaldu da eta taldearen agenteak, Wolfek, taldea berriro biltzea eta Estatu Batuetan zehar bira bat egitea erabaki du . Arazoa da Bacon anaiak txerriak direla eta bere agentea, aldiz, otso bat. Zer joan daiteke gaizki?

• DINOSAUROEI BURUZKO EGIA. Guido Van Genechten. Euskaraz. 4 urtetik aurrera

Oilo batek burlaz kontatzen du dinosauroen familiatik datorrela. Familia album baten bitartez, dinosauroen bizitza kontatzen du eta guztiak nola desagertu ziren. Beno, beraiek izan ezik:Gallus gallus domesticusak.

• BALDAR BIKINGOA ETA KANPALDI BASATIA. Odin Redbeard. Euskaraz. 8 urtetik gora

Jakina, bikingoen kanpaldi bat basatia izan behar du. Baldar bikingoak ongi daki. Irakasle berri bat iritsi da eskolara eta Baldar irrikaz dago berarekin kanpaldira joateko, eta basoan ehizan aritzeko, esploratzeko eta abenturak bizitzeko. Baina ibilaldi luze amaiezina eta bare txigortuen platerkada handia nahikoa izango dira Baldarren poza uxatzeko. Iluntzen hasten duenean, apur bat ikaratuko da bikingo txikia... troll ugari baitabil basoan barrena!



liburuaren azala

• JACK TXIKIREN BALADA. Mikel Valverde. Euskaraz 10 urtetik gora

Txerri uda ematen du aurtengoak! Jack Txiki txerri margolaria da, baserri batean lasai bizi dena. Lasaiegi, agian. Kasualitatez, egun batean pirata itxura duen gizonkote lotsagabe bat iristen da. Sorbalda gainean daraman loroarengatik sumatu daiteke. Jackek, orduan, ideia bat izaten du: loroz mozorrotzea abenturak bizitzeko. Une horretan, ordea, ezin du imajinatu abenturak ez direla beti batek nahi bezala suertatzen. Hori bai, hark bizitakoa kontatzea merezi du, aparteko abentura izan baita!

• BIHOTZ AUSARTA. Joanes Urkixo. 12 urtetik gora

Hamalau urte betetzera doa Urtzi, eta bere bizitza ez da oso atsegina. Aitaren errietak eguneroko ohitura bihurtu dira (askotan bere disko zaharra lapurtzeagatik; ez dakigu haien artean Bacon Brothersenak egongo diren).. Azterketetan ustelak ateratzen hasi da eta munduko neska zoragarrienaz maitemindurik dago, baina hark ez dio jaramonik egiten. Arazo hauei guztiei aurre egiteko, Urtzik bihotz ausarta duela erakutsi beharko du.



HELDUENDAKO NOBEDADEEN ZERRENDA

Komikiak

ESTAMOS TODAS BIEN. Ana Penyas

PEPE BUENAVENTURA DURRUTI. Azagra

Narratiba

BASA. Miren Amunarriz

LERRO ETENAK. Anjel Erro,

AMEK EZ DUTE. Katixa Agirre,

ROSA ITZULI DA. Pako Aristi

MARI MUTIL HANDI BATEN BLUESA. Leslie Feinberg

FILIALA. Serge Dovlatov

ROCKANROLA MAILU BAT DA/ El rocanrol es un martillo (CD-liburu) . Josu Arteaga / La banda del abuelo

CAMBIAR DE IDEA. Aixa de la Cruz

EL ALIADO. Iván Repila,.

VOZDEVIEJA. Elisa Victoria.

Los colores del incendio. Pierre Lemaitre

SOLEDAD. Carlos Bassas,

LOS ASQUEROSOS. Santiago Lorenzo,

LOS REYES DE LA MUDANZA. Joshua Cohen,

LECTURA FÁCIL. Cristina Morales.

Poesia

ANALFABETOA. Iñigo Astiz

Entsegua

KARTZELAKO GUTUNAK SOPHIE LIEBKNECHTI. Rosa Luxemburg

CONTRA EL PATRIARCADO. María Pazos Morán

AIRBNB. La ciudad uberizada. Ian Brossat

Patxi Irurzun
Ultzamako liburuzaina

Udako ordutegia:

Goizez 10:30etik-13:30era
astelehenetik ostiralera

ITXITA:
Uztailaren 4tik 18ra eta
abuztuaren 5tik-16era



2019ko maiatza

Gure alderdian, **maiatzean** *izan ziren jaiotzak, ezkontzak eta heriotzak:*

Jaiotzak:

ULTZAMA
Orkin
Aingeru Goñi Molinares, Sergio Javier eta Leyreren semea. **Migelenean**.



Orkina Aingeru etorri zaigu

> *Zorionak gurasoei*

Ezkontzak:

Maiatzean ez zen ezkontzarik izan gure alderdian.

> *Gure oroimenean izanen zarete*

Heriotzak:

ANUE
Burutain
Miguel Maria Villanueva Murillo, **Txantxoneko** nagusia, maiatzaren 3an hil zen, 85 urtetan.

ULTZAMA
Alkotz
Rosa Iraizotz Apeztegia, **Marimigelenekо** alaba, maiatzaren 14an hil zen.

Eltzaburu
Sofia Iribarren Arangoa, **Agirreneko** etxekoandre zaharra, maiatzaren 10ean zendu zen, 84 urtetan.

BASABURUA
Itsaso
Maria Juana Iriarte Ansorena, (Agustin Belokiren andrea) maiatzaren 25ean hil zen, 71 urtetan.

ULTZAMA
Lizaso
Felix Ermigarate Ziganda, **Lizasoko denda**ko nagusi zaharra, maiatzaren 1ean hil zen, 87 urtetan.



Rosa Iraizotz



Sofia Iribarren

NEUMÁTICOS BETELU

646 47 41 66

Juan Alonso Ortiz
Taller Mugikorra
Neumatikoen aldaketa
Zulatutako neumatikoen konponketa

Zuk nahi duzun tokira joango gara zure neumatikoak konpontzera
Kostu gehigarririk gabe, kontsultatu prezioak
Nafarroan eta Gipuzkoan lan egiten dugu

Erdiko karrika, 8A · Aizarotz (Basaburua) · Info@neumaticosbetelu.es

MANTENTZE – LANAK · INSTALAZIOAK · KONPONKETAK · ARGI PUBLIKOAK · PROYEKTUAK · AURREKONTUAK · BOLETINAK ETA ZIURTAGIRIAK

KARI KOLAR
ELEKTRIZITATEA

KARRIKOLAR
ELEKTRIZITATEA

629 31 53 32 · 722 766 835

LIZASO · karrikolaregoitz@gmail.com

GOTELET-A KENTZEA

FATXADAK ZAHARBERRITZEA

IRAGAZGAITEA
(IMPERMEABILIZACIONES)



DAVID ELIZONDO PINTURAK
DEKORAZIO ETA INDUSTRIA PINTURA

KALITATEA ETA GARBITASUNA

AURREKONTUA KONPROMEZURIK GABE

678623866

ZIAURRITZ · argapin@hotmail.com


Maika Iraizoz